

BIZKAITARRAI
BIZKAIERAZ
84n. ZENBAKIA
EPAILLA
(MARTIA)
1985

DAÑOBETIA TOR' KEZA
MAXIMO AGUIARRE, 19. 30PL.
48011 - BILBAO

**B
U
T
R
O
N**



**G
A
Z
T
E
L
U
A**

**ANTXIÑAKO EUSKALDUNAK EGIÑA
GAURKOENTZAT IKUSGARRIA**

ARAZOAK

GOSEAREN AURKA

LAGUNTZEN

Otsailaren 11'n egin dogu Gosearen aurkako Ekiñaldian, diru-laguntza emoteko egun berezia, baiña edozein egunetan eta urte osoan da sasoi laguntza ori emoteko, orretarako naikoa da Banku batera joan eta Ekiñaldi orretarako dirua eskintzea.

Baiña sarritan kezka au sortzen jaku barruan: Eltzen ete da gero, nire laguntza au eldu bear dauan lekura? Ala bidean urtu ta galdu egiten ete da?

Eta kezka orrek be bere zioa dauka, noizbeinka entzuten dogulako Ameriketako edo Afrikako agintariren batek banatze ori oker egiten dauala.

“ESKU ALKARTUAK” deritxon ekiñaldi onetan badakigu eltzen dana eta zertan erabilten dan be bai, beste urte batzutan lez, aitatu dagiguzan irugaren munduan egiten diran laguntzazko ekiñaldi batzuk.

ASIA'n

Igaz Asia'n 143 eginbide bete dauz “Esku Alkartuak” Gosearen aurkako ekiñaldiak: Bost lurgintzan: 23 osin, 15 sendiretza lurra erosi, iru landa-etxe egin, 332 abere ta bost traktor erosi.

Iru gizarte laguntzan: 216 etxe egin, Etxegintzarako Alkargoari ordaindu, 12 itxas-ontzi ta sei jeep erosi.

Jakintza arloan beste iru: 24 ikastetxe egin, ikastelaguntzak emon, lau ikastetxetarako lan-gaiak erosi.

Osasungintzan bi: Lau gaiso-etxe, 11 aztertze-etxe eta 3 janaritze-toki egin eta sei gaiso-etxetarako osagille-gaiak erosi.

Emakumeen aurrerapenerako beste bi: Emakumearen aurrerapenerako 10 toki egin eta eungiña erosi, 50 josteko eta idazteko tramankulu erosi.

Eginbide oneik 332.908.831 pezeta bear izan dabez.

AFRIKA'n

83 eginbide bete dira, dirutza 159.525.785 pezetakoa dala.

Lurgintzan: Osiñak, ur-askak, ura eroateak, landa-etxeak, errotaketa kakaueteentzat dollarak, traktorak, lanabesak.

Gizarte-saillean: 22 bizileku, 16 osasun-etxe, bost gizarte-etxe, ola bat, zazpi zubi, bide zabala, andapara bat. Lau jeep, 14 itxas-ontzi, berebil eroale bat eta autobus bat erosi, alkargo bi aurrera atera.

Jakintza-arloan: Zazpi ikastegi eta bost lanbide ikastegi egin, zazpi ikastetxetarako gaiak erosi.

Osasungintzan: Gaiso-etxe bat, sei aztertze-etxe, umegintzarako etxeak, ume-etxeak, janaritze-etxeak. Iru osasun-toki ornidu, bost gaiso-berebil, osagille bateri ordaindu.

Emakumearen laguntzan: Orretarako bost toki egin, 34 idazkin erosi, edo joskiñak, janaritze-ikastaroak.



AMERIKETAN

192 ekiñaldi bete dira, 385.064.173 pezetako dirutzagaz.

Lurgintzan: Lau osin, lau gorakin, ur toki bi, ureztazteak eta urbide barria. Bost treberi ordaindu eta lurgintzako bost ikastaro eratu, iru alkargo eta arrain-toki bat, 20 ektarea lur, 356 abere, kamioi bat zazpi traktor eta lanabesak erosi.

Jakintzan: 14 eskola egin, 12 ikas-sari, 23 irakasle-sari 13 ikastaro. Lau ikastetxetarako gaiak erosi eta bost liburutegi sortu.

Gizarte-lanean: 470 bizileku egin, 15 lanbide-ikastegi 16 ola, zubi ezkegi bi, bidebarria, jantokia, eskatza. Bizilekuak egiteko lau alkargo bideratu eta irrati bat ipiñi, jeep bi, sei itxas-ontzi ta berebil eroale bi erosi. Zortzi ola eta Lanbide-ikastegi bat lanabesez jantzi.

Osasungintzan: 14 aztertze-etxe, ume-etxeak, umegintzarako etxeak, janaritze-etxeak. Bost osagille-etxe osotu, gaiso berebil bat, gaiso-etxe bi eta laborategi bat ornidu.

Emakumeen laguntzan: Emakumeen aurrerapenerako bederatzi etxe eta eungin bat egin. 59 idazkin edo jozkin erosi.

* * *

Ez gaitazan ba nagiak izan munduan dan goseari ta bear dan aurrerapenerari bide egokiak sortzeko laguntza emoteko. Ez dagigun aitzu jakingarri pentsagarri au: Lurraren garririk berakoak dira gosez bizi diranik geienak eta Ego-Amerika alde batera itzi ezkerero, orreixek dira Barri Ona gitxien artu dabenak be. Mundu aberatsenak kristiñauak dira eta norberekeriak eraginda laguntza larregirik ez dabela emoten esan lei.

OLAZAR'tar MARTIN'ek

BIDALGOA

GIZARTEAN BEAR

Bidalgoa edo eskutitzak eroateko ta ekarteko zeregiña antxiñakoa da gizartean, baiña oraintsuago gaur dagoan eran jarria.

Bear-bearrekoa dogu gaurko gure gizartean bidalgoa, gizonen arteko artu-emonak len baiño ugariagoak diralako eta gizonak eurak be mundu zabalean len baiño geiago banatzen diralako. Egia esan, or daukaguz alkartzen gaituen beste bide batzuk be, esaterako urrutizkiña, urrutidazkiña eta olakoak, baiña errezena ta merkeena bidalgoa dogu.

Sarritan, urrin bizi diran gure etxeoak, lana dalako edo beste zeregin batzuk beteteko urrin joan diran gure seni-deak pozik artzen dabe eskutitza eta onek emoten dauan poza ta alkartasuna iraunkorragoa da urrutizkiñarena baiño.

Eta sarritan ez dira izaten izki utsak, gauzatzuren batzuk bialdu-bearra be izaten da. Gu etxean geure zeregiñetan gagozan artean, an doa gure eskutitza, aizez naiz itxasoz, urrutira, egunerik egunera eta biderik erratu barik.

AZTERTZEA

Bidalgoak izan dauz bere urrezko aldiak, zeregin ori zeatz eta egokiro beteten zan aldiak. Orduan bai, eskutitzak arin eta ziur eltzen zirala euren elburuetara.

Baiña aspaldion ez da ain gauza ziurra eskutitzak eltzea edo bear dan sasoirako eltzea.

Lenengo, igande ta jaietan laguntza ori kentzen asi ziran. Urte batzuk dirala, jai-egunetan be zabaltzen ziran eskutitzak.

Gero langilleen eskariak etorri dira, eta euren eskubideak beteteko ain sarritan egiten dabezan bidalgoko langilleen opor-aldiak. Olako aldietan eskutitzak pillatu egiten dira eta gero egun asko bear izaten da barriro lana arautzeko.

Iñoz izadiak berak be egoera txarrak sortzen dauz bidalgoarentzat: Urioletan, edurtzetan...

Eskutitzak bialtzen doguzanok be ez doguz beti artzen artu bear gendukezan ardurak, esaterako gabon eta gabon-zar inguruan eskutitzak pillatu ez daitezan.

Zergaitik edo agaitik, gaur bidalgoak daukan bere zeregiña beteteko ereaz ez daukagu pozik: Eskutitzak eltzea, urriñerako izan ez arren, sarritan illeak atzeratzen da.

OBETZEA

Gauza guztiak obetzera joatea nai genduken lez, bidalgoak erriari emoten dautson laguntza be obetzera nai genduke: Obetu trebe-aldetik or dabilzan langilleak euren zeregiña beteteko erreztasun geiago izan dagien, obetu langileen aldetik lanerako abeto gertatu daiteza eta euren bizitza eroroagoe izan daiten, orretarako langille geiago bear ba'da be artuta, eta obetu erri-laguntza lez, bidalgoa erri-laguntza dalako eta milloiak gara laguntza ori artu bearrean aurkitzen garanak.



EUSKAL SANTUAK**XABIER'TAR FRANTZISKO SANTUA**

Euskal santu eta doatsuen talde au, Xabier'ko Frantzisko, mixiolari ospetsuaren bizitzaz amaituko dogu.

Frantzisko'ren aita, Joan Jasso, Naparroako Legebiltzarreko lendakari izan zan, eta bere ama Maria, Baztan'go Azpikueta errian jaioa. Euskaldun utsa, beraz.

Bost seme-alaba sortu ebezan: Magdalena, Ana, Mikel, Joan eta Frantzisko, txikiena, 1506n. urtean jaioa.

Frantzisko'k, bere gaztelu-etxearen izena artu eban abizentzat, orduko oitura zanez.

Mikel eta Joan agramont aldeko abertzale sutsuak ziran, eta Nafarroa'ko askatasunaren alde azkeneraino jokatu eben. Frantzisko bere anaiei laguntzeko txikiegia izanik, Paris'ko bidea artu eban, jakinduriaren bidez, bere etxe jausiaren izena barriz jasotzeko.

FRANTZISKO PARIS'EN

Paris'ko ikastexe nagusian Loiola'ko Iñigo euskalduna ezagutu eban, eta gerran arerioak izan arren, atzerrian euskal-odolak bultzaturik, biak lagun aundiak egin ziran. Iñigo'k sarritan esaten eutsan Napar gartsuari: "Xabier, eta zer ardura gizonari mundu guztia irabazita be, bere arima galtzen ba'dau?".

Frantzisko, beti gazte zintzoa izanik, Jesusen berba oneik santu izateraiño jaso eben.

XABIER MIXIOLARI

Portugal'ko erregeak, India, Ozeania eta Japonia'ko lurraldeak Kristo'ren federa ekarteko, mixiolariak eskatu eutsazan Aita Santuari.

Loiola'ko Iñigo'k Erroman, bere lagunik aundiena Xabier izendatu eban lan onetarako.

Xabier'en amar urteko mixiolari lanak, zelan lerro gixitan sartu?

1.540. Lisboa'tik India'ra doa Xabier itsasoz. Amairu illebeteko itsaso-aldi luzea.

1.541-1,543. India'ko lurralde zabaletan mixiolari: Goa, Kotxin, Malabar, Zeilan...

1.543-1,547. Ozeania'ko ugarteetan Jesusen Barri-Ona zabaltzen. Malaka, Anboino, Ternate, Moroan ugarteak...

1.548. India'ra itzuli ango gauzak eta arazoak zuzendu, eta Japonia'ko joanera prestatzeko.

1.549-1.551. Iru urte Japonia'n: Kangosima'n, Nangasaki'n, Meako'n eta beste erri askotan Jesus Salbatzaillaren berri-ona emoten.

1.552. Barriz India'ra Txina'ko joera atontzeko.

1.552. Gabonillak 3, Txina'ko ate-aurrean, Santzian ugarte bakartian, ilegin zan, Xabier bere amak euskeraz erakutsitako otoitzak ezpaiñetan zituala.

JAVIER ALA XABIER?

Bai Frantzisko'k berak, baita bere etxeakoak *BETI* "XABIER" idazten eben gazteluaren izena adierazteko... antxiñako dokumentuak aztertuz, izen orrek aldaketak izan ditu: Etxaberri, Txaberri, Xaberri eta azkenez Xabier... Ilunberri'tik Ilunbier aldatu zan legez. Onetan ez da zalantzarik.

XABIER EUSKALDUNA

Frantzisko'k bere gaztelu-etxean, bere amagaz eta ango morroi euskaldunakaz euskeraz egiten ebala, gauza jakiña da.

Baiña berak diño argi eta garbi India'tik bialdutako eskutitz batean: "Ni orain Komori'n lurraldean, malabaren artean, Kristoren barri-ona zabaltzen nabil, baiña nik eurei ezin ulertu, ezta eurak neuri be, euren izkuntza malabarkoa dalako, eta *nirea bizkaikoa*" (Orduan Ego-Euskalerra osoari Bizkaia deitzen eutsoen).

1.933.n urtean Aita Pier Lhande, Zuberoa'ko jesulagun ospetsua, Goa-raiño joan zen, Xabier'en erlikiak, erdi momia egiñak, aztertzeraz, eta ikusi ondoren onelako au idatzi eban: "Xabier'en burua 'V' baten antzekoa da. Beraz euskal endako buru itxura garbi-garbikoa".

Xabier'ko Frantzisko, euskal ikastolen zaindari, otoiz zerutik gure gazteen alde.

GOIKOETXEA'TAR INAKI

EUSKALERRITIK MUNDURA BEGIRA HONG KONG

Nok ez dau Hong Kong entzutez ezagutzen? Izparringietan, Iratietan, Ikust-irratian, eta baita zine-mintzeetan ere zenbat aldiz ez zaigu etortzen begietara eta belarrietara munduaren beste aldeko uri aundi aberats zaratatsu ura?

Txina'ren egoaldean dago Hong Kong; Kanton'go itxas-kolkoaren sarreran. Inlanderriaren mende-lur edo kolonia da. Ez aundia lurrez; baina ugaria jendez.

Hong Kong, ugarte txiki baten izena da. Ugarte ortan dago Victoria deritzan uria, koloni osoaren Uri Nagusia. Baiña ugarte ortaz gaiñera, beste 230 ugartetxok, eta Kowloon izeneko lur-adar edo peninsulak osatzen dabe Hong Kong'ko Kolonia. Lur-Adar onen sarkaldeari "New Territories" esaten yako, "Lurralde Berriak", lurralde oiek 1898'an Txina'gandik larogoita amar urterako errentan artuak izan bait ziran; Inlanderriak artuak.

Lurralde berri oiekin eta guzti, oso txikia da ala ere Koloni guzia. Gipuzkoa baiño txikiagoa. 1.032 km. laukoi besterik ez dauz. Gipuzkoa'ri Endarlaza'tik itxasora Deba-Arana kenduko balitxako, Hong Kong aiñakoa izango litzake gutxi-goia bera.

Jendez ordea askoz aundiagoa da Hong Kong. 700 eta geiago milla, Gipuzkoa'k; 6 milloitik gora, Hong Kong'ek.

Ez da ludian, kilometro laukoiraiko Hong Kong'ek aiña biztanle duan lurralderik: Sei milloi, 160 kilometro laukoietan! Bizkai'ko Txorierraren mugen barruan, sei milloi'; Hong Kong'en 1.032 kilometro aiek ez bait dira danak, gizakumearen bizitzarako egokiak. Ona emen nola dagon Koloni aren lurra zatiturik:

- 124 kilometro laukoi, baratz, soro, eta zugaiztiak dira.
- 31 kilometro, uri-lur dozuz: etxeak, kaleak, eta olak; lan-tokiak, bizkorra bait da *Koloniko* langintza, industria.
- Beste 160 kilometroak ezertarako baliorik ez daun arria eta arkaitza besterik ez da.

* * *

Inlanderriarra aruntz joan baiño leenago, arrantzale batzuek bizi ziran Hong Kong'en. Oso gutxi. Baiña ondo ezaguna eban txoko ura itxas-lapurrek, izkutu-toki lez.

1839'an piztu zan Lenengo Opio-Guda Europa'ko Laterri indartsu eta Txinaren artean. Guda ortatik ziturik ederrena Inlanderriak atera eban: Hong Kong, Txina'k betirako eman eutsan doaia. Bereala asi zen azitzen eta azitzen Koloni berria. Gaur, Hong Kong ludiko kaiarik aundienetakoa eta bikaiñienetakoa da.

1860'ean eman eutsan Txina'k Inlanderriari Kowloon'go itxas-adarraren sortaldeko ertza, Hong Kong'go kaiak bearrezkoa eban babesa izan egian.

1911'ean jausi zan Inperio eta Errepublika sortu Txina'n. Gerozti, matxinada, iraultza eta guda ugari jasan bear izan dau Txina'ko Laterri zar arek. Ta Txina'tik, pake-billa igesi, joan eta joan ari izan da jendea Hong Kong'era. Batez ere 1922 eta 1937'an Japon'ek Txina'ri eraso eutsanean. Eta zer esanik ez Chiang-Kai-Chek menderatuta Mao-Tse-Tung'ek komunismoa an ezarri ebanean.

Ikus nola azi zan Hong Kong: 1931'an 850.000 biztanle ebazan; 1941'ean, 1.600.000; Orduan artu eban Kolonia japoindarrak. Auek joan ziranean, 1945'ean, 600.000 ziran Honkongdarrak; japoindarrak etorri ziranean baiño milloi bat gutxiago. Urte bete geroago, 1.600.000 oster. Urrengo urtean, 2.400.000; 1961'ean, 3.131.131; 1966'ean, 400.000.000; eta orain sei milloitik gora!

* * *

Txina'ren aragian sartutako arantza mingarria izan da orain artean Hong Kong. Geiagoko miñik eta okerrrik gabe arantza ori atera-naiean, itunben edo kontratu bat egin dabe orain-oraintxe Inlanderriko Thacher Andreak eta Txina'ko Jaurlaritza komunisteko Zhao Ziyang'ek. Itunben orren araura, 1987'an Txina'ri itzuliko dautso Koloni osoa Inlanderriak. Txina'ko Jaurlaritza komunistak, Hong Kong'ola eta negozio guztiak, ez Laterriarenak egitea agindu dau. Beraz, Txina komunistaren altzoan, kapitalista irauango dau Hong Kong'ola ekonomiak.

Ez dira oso lasai gelditu Hong Kong'ola jendeak. Bildur dira ola-gizonak. Ola asko da Koloni artan; diru asko dago kapital egiñik an. Ez ote dira ola oiek ezereztuko kapitalak andik alde egingo daualako? Ez da ba jendea komunisten izketaz fiatzen!

Bildur dira demokrazi-zaleak ere an. Lendabizi itunben ori Inlanderriak eta Txina'k, honkondarren naia kontuan artu gabe egin dabelako. Ez ote dabe demokazi-zale auek ere, Komunisten eskuetara jausi baiwo len Hong Kong'dik igesi egingo? Ori gertatzen ba'da, kapitalistarik, kapitalik, ola-gizonik eta langille iaierik gabeko lurralde txiro bat artuko leuke Txina'k, eta, jakiña, ez dau orrelakorik gertatzea naiko. Baiña Hong Kong'ola jendeak andik irten nai ba'dau, bai ote dau Inlanderriak jende orri irteera galezteko eskubiderik? Egin al daike ori Inlanderria bezalako Laterri demokrazi-zale batek?

Fiatu al daiteke Inlanderria Txina'ko komunisten esanetaz? Komunistekin fiatzerik ez bait dago. Zergaitik? Karlos Marx'en atikan, "egia", "egokia" dana dalako. "Egia" "Ona" eta "Egokia" gauza ber-bera esan nai daben itzak dira. Komunismoa aurrera eramateko egokia dan guzia, ona da, egia da. Eta komunismoarentzat egokia ez dan guztia, txarra da; gaiztoa, okerra, eta gezurra!

Orregaitik pentsaeraz ain errez aldatzen dau marxismoak: gaur egokia dana biar izan bait daiteke kaltegarria, etzi oster a egokia izateko. Orrela pentsatzen dute komunista danek: Txinakoak Alderdi Komunistak eta euzkadi'ko EE eta HB'ek. Fiatu al gaitkez.

BERTSOETAN

AMETSETAN

Ni txoria jao nintzan
alai bizi izateko
asmo bat bakarrik neukan
aske izan betirako.

Egaz asi nintzanean
bjotza pozez beterik
nire alaitasuna bertan
gelditu zan gerturik.

Ainbat gauza ikus neban
eta danak ain loiak
nire anaitxo maiteak
amaraunez loituak.

Aramu txikiak ziran
zoritxarez ugari
leku askotatik elduak
gure etxaldean sarturik.

Egazka goratu nintzan
aramu areen artetik
une aztugabeak ziran
ta zoritxarrez urri.

Laster itzuli egin nintzan
barriro gure espexera
guztiok egun batetan
aske ibilliko gara.

Anai guztiok alkarrik
sendotuko da indarra
eta indarrak alkartuta
joango dira aramuak.

Egin daigun bitartean
gure artean euskeraz
abestu danok batera!
GU EUSKALDUNAK GARA!

EUSKALDUNBARRI IZATEA

Jaungoikoari eskerrak, gero ta euskaldunbarri geiago gara Euskalerrian baña ia danak, ezkutuan aurkitzen dira, zergaitik au? Euskerea ez da abesti barri bat lez ikasten, ez, euskera ikastea, euskaldun asi izatea da. Buruan daukaguzan itz eta oiturak biurtzea da. Teoria jakitea, gauza bat da eta burutik agora eta itz-egitea, beste bat.

Orain zortzi egun, gure adiskide batzuen baserrira joan nintzan ikasitako euskera erabiltzeko asmoz eta betikoa jazo jatan, nik gero ta geiago ikasi arren, euren artean berbetan dagozanean "agoa bete agiñegaz" itxiten nabe. Zorionez, nigaz batako edo besteak alkarizketa egitean, ondo konpontzen garala. Au, nik ikasi dodana Bizkaiera dalako, ostantzean, "ago bete azurregaz" geratuko nintzake.

Laguntza aundia bear dogu euskaldunbarriok euskaldunzarreengandik, lenengo, gure lotzea kontzeko eta gero

gure zaletasuna aunditzeko. Eurak emon bear dauskuez; euren erri-esaera, euren erabaki ona, pentsaera ta esateko modua, bestela, izkuntz otza izango da eta gure izkuntzak erririk barik, ez dauka bizitzeko itxaropenik.

Ugari dira, "Euskereak ez dauala ezertarako balio" esaten dabenak be eta oneetarik batzuk zoriotxarrez, euskaldunak dira. Onei nik gauza bat esango neuskioe:

Zuen ama orain, zar eta gaixorik izango balitz eta etxean bere ardura bearrezkoa balitz, zer egingo zendukee? Beste ama gazte ta osasuntsuago bat billatu, ala zue-na zaindu ta laster osatu?

Ez esan ba orrelako astokeririk mesedez! gure izkuntza euskerea da eta Bizkaian *bizkaiera*; ez kentzeko, ez aldatzeko iñork ez dau eskubiderik.

PALMI'k

AURTENGO EDURTZA 1985

Au edurtza gogorra
etorri yakuna,
bardiñik aspaldian
ikus ezdoguna!
Atzo umientzako
izan zan eguna!
Edurtzan euki eben
euren poztasuna.

Edurtza kaltegarri
izan zan zarrentzat,
ta begira zelan dan
pozgarri umentzat.
Olantxe da mundua:
ona batzuentzat
ta txara izaten da
beste batzuentzat.

Lurraldia daukogu
ure dariola.
Pentsatzen dot nik orain
ondo yatorkola,
guztai mesedea
egiten dautsola.
Ez ibil erostari
augaitik, iñola.

"Ekaitzaren ondoren
dator eguzkia",
esan oi da errian,
t'esana, egia.
Baita "Negu edurtsu
uda ugaria".
Olan dogu edurra
mesedegarria.

Munduan bizitzeko
bearko da ura.
Etiopian danak
ori dabe gura.
Gogortuta badau be,
ure da edurra;
edurra baleukie
salbatuko lira.

Afrikan ure ezaz
dauke eriotza.
Salbatuko litzakez
balebe edurtza.
Ur barik, bear dabe
besteren laguntza.
Oneik bizi daitezana,
samurtu biotza.

Bizi nazan aurrean
dot piñu eder bat,
ta bertan ainbat txori
abeslari daukat.
Kantuen ordezt, jaten
guztai damotsat.
Bizitza pozgarria
benetan niretzat!

Uste dot edurtzagaz
aldeben kanpora,
lagun ziran txoriak;
etozen ondora,
ogia jatearren,
baita be altzora.
Noz etorko txoriak
barriro bertora?

Illak ta zaurituak
gogoa daukaguz;
eurai tamal agurak
zintzo damotseguz.
Ondasun kaltetuai
omongo dautseguz,
gogorik onenagaz,
diruz ta erreguz.

Agur garratz damotsat
edur zitalari,
baita eskerrak lurra
buzti dauskunari.
Ezin on utsa egin
munduan danari.
Bata bestez, doala
t'agur EDURTZARI.

EUN RUBLOAK

Erriko kaleak utsik dagoz.

Lokatza eta edur-nabarra buztiñetan. Tanke guda-tresneen arrastoak ugari eta naasi. Gerratea da.

* * *

—Ez, ez, ez..! Ama, lagundu eidazu..! Mesedez..!

Intziri luze penagarri batek eten dau gauaren ixilla. Etxeetako ate guztiak barrutik trunkaz itxita dagoz; baiña, beti izaten dabe etxeetansartzeko aitzakiren bat soldatu zar auk:

—Dan, dan.

—Nor da?

—Atea irikitzen ba daustazue... Ura bear dot, ez bait dago erri onetan iñungo iturririk kalean...

Aterik irikitzen ba'dozu, galdura zera. Bildurrak eraginda, etxeko atea zabaldu daben zenbaitek intziri eta negar atea iriki ondoren...

* * *

Errixka txiki kutuna.

Mendi-magal luze batean etzanda. Goiko gailurrak, zuri elurrez; beerago, nabar; errian loa buztiñez... Erriaren erdian, etxez inguraturik, oillaloka txitaz bezelatsu, eliza kanpai-dorrea zerura begira dauala, kristau zaar auen begiak dagozen bezala.

Bei, zaldi, asto etaardi ikuilluetan; pipar-gorri xortak sukaldeetan zintzilik. An beeran, Bekokalean, ikastola eta maixuaren etxea. Gaur da bigarren gau tristeia soldaduak sartu ezkeroztik. Maixua, emaztea eta seme-alabak urduri dagoz. Iñor dabil kaleko etean. dan-dan. Yuskak maigai-ñeko kutxillorik aundiena artu du eskuetan. Kateriñek, berriz, yuskarem arrebat, ikuilluan gorde dau bere burua, egur-artean.

—Dan, dan. Berriz ere atean.

Yuskak kutxilloa eskuetan. Aita-amak alkarri begira ate alkarri elduta atsekabearen atsekabez.

—Dan, dan. Irugarrenez.

—Zer egingo dot, aita?

—Eragin, seme ateari okerragoak gerta ez ditezen eta gorde begien artetik kutxillo ori.

—Ez, aita, ez; nere arrebari ez dio iñortxok ere ikuturik egingo!

—Yuska, kendu nere aurretik arma ori.

—Dan, dan, dan...

—Neuk irikiko dot! diño Amak. Bai, banoa...

Poliki-poliki eragin dio amak ateari. Arnasa eta biotza biak batera gelditu zaizkio une artan:

—Ur apur bat nai nuke... Ez bait da iturririk kalean...

Kutxillo-kirtenari eldu dio Yuskak. Bildur zutena gertatu da: soviet-gudaria daukate ate-ondoan, barrura sartzeko baimenaren zai. Ofizial jazkera dau. Une batean denak ixil, ez itzik, ez arnasarik...

—Pasa neike aurrerago..?

—Bai, jauna, bai, pasa barrurairiño. (Aitak gudariari.)

—Eskerrik asko.

—Ez da zeren.

—Ur apur bat, mesedez...

Amak dakarkio ura sukaldetik antxosin batean.

—Eskerrik asko.

Zanga-zanga ura soldaduaeren zintzurretik beera.

Edanda gero:

—Eskerrik asko, berriz ere. Emen semea apaizgaia dozue.

Argizari zuria odolaren ordez zaiñetan: zuri gelditu dira irurak, aita, ama eta semea:

—Bai, jauna.

—Esan apaizari biar Pazko-Eguna dela eta Errusian ere Pazko-Eguna aspatzeko oitura badogula. Kanpaiak nai dodaz goizetik eta Meza ondoren.

Besterik gabe, gudari-agurra egin etabadoa etorri dan bidetik.

Ikuillutik urten dau Katariñek. Emezortzi urte bete-barriak. Gordin, panpoxa, baltzarana. Begi baltz, illematasa baltz:

—Entzun al dozue?

—Bai, aita-Kateriñek erantzun-baiña ez geiegi fia.

—Ez dausku okerrik egin...

—Eta, zenbat oker egin dabez bi egun larri oneitan..?

Auzo guztia kezkatu dago. Kontuz, aita.

—Zergaitik ez..? (Yuskak Kateriñeri.) Zure onagaitik, orren kontra, aitzoz jagiko nintzan, bearrik izan ba'litz; orain barriz, bere agindua bete bearrezkoa dala deritzot.

—Baiña, seme (amak erantzun) apaizengana joatea arrisku aundiegia da...

—Aundiegia, ez.

—Eta bidean gudari gorri oietako batek elduko ba'li-zu... Eta biar Meza ematea txorakeri aundi bat ba'litz...

—Ama, biar Pazko-Eguna dogu eta ez nuke nai nere kulpaz orrelako egunez Mezarik ez egotea... Apaizengana joan bear dot!

—Ez, seme, ez zaitez joan..!

—Bai, andratxo, joaten utzi egiozu, ez dau bestela bakerik izango ta.

—Bai, ama. Eta oraintxen bertan noa; gero apaizak jakingo dau Mezarekin zer egin.

Iltzedun oiñetakoak jantzi eta orra or nun dijoan saltaka, loitik loira, Yuska apaizgai mutil gaztea...

* * *

Gertakizun auk 1944 urtekoak dira. Hungriako errixka batekoak. Erri txikia, erri xarmanta, baserria... Pazko-Eguna biar. Errusiako soldaduak errian sartu ziranetik bi egun t'erdi. Gudari oneik dirala ta, bildurra kokatu jako erri politari bere barruan. Basauntzek baiño bildur geiago dabe baserritar oneik euren biotzean...

Jo dau apaiz-etxeko atea Yuskak.

KONTU KOTARI

—Nor da?

—Yuska naiz, jauna.

—Sartu bizkor barrura. Ate zaarrak txirrio... Apaizak berekiko: Ate onek koipe apur bat blar dau. Yuska apaizaren aurrean, arnas-estuka, itzik atera eziñik.

—Zer dok, mutil. Bildurra ematen daustak...

—Ara, jauna... soviet-ofizial batek agindu daust zuri esateko, biar goizean kanpaiak jo eta Meza emateko...

—Zeeerrr..?!

—Kanpaiak jo eta Meza emateko...

—Kanpaiak jo eta Meza eman..?!

—Bai, bai, orixe esan daust.

—Ez al dok tranparen bat izango..?

—Ez ba jakin...

—Izango ba'litz..?

—Kaiola barruan, xagu baten antzera, arrapatuta geldituko giñakela.

—Eta, izango ez ba'litz..?

—Mezarik gabe Pazko-Egunean bildurkiak izan generala-ko.

—Korapilloa dok au, Yuska, eta ez nolanaikoa.

—Zer egingo dogu..?

—Orixo galdetzen joat neuk be...

—Nik, jauna, Meza emongo neuke.

Goizeko seiretan kanpaiak jo eta Meza ematekotan gelditu ziran biak.

* * *

Ez zan gau ura berealako batean pasa. Gelako solairuari begira igaro eban denbora gure apaiz zaarrak. Aspaldian ormak zuritu gabe egoala konturatu zan. Gudara gorri areik errian egozan artean kanpaiak jo eta Meza ematoa, ez al zan zorakeri utsa..? Ez ote zan ori zuur-falta izugarria..? Zuurkeri eta prudentzia bildurkeriarekin bat gertatu oi dira sarritan... Bere bildurkeriaren kulpaz eta erruz, Pazko-Egunean, erria Mezarik gabe iztea, ez al zan Jainkoganako maitasun gutxi agertzea..? "Ni gizen aurrean ukatzen nauena, neuk ere bera ukatuko egingo dot neure Aitaren aurrean..." "Bere bizia gordetzen dauanak, berorrek galduko dau bizi ori; neregaitik galtzen dauanak, berak gordeko dau beretzat..." Jesusen esaera oneik eta onein antzeko beste asko etorkiozen burura etengabeko errenkada luzean... Alderantzitik gauzari, arazoari, begiratu ezker, ez al zan Mezea emotea zuurkeri edo prudentziaren kontrako pekatua..?

—Zuurkeria, askotan beintzat, bildurkeriaren tapaki bat, estalki bat, besterik ez dozu. (Esaten euzon adimenak.)

—Bildurra badot nerekin, bildur aundia; baiña, nik ez dot nai bildurragaitik jokatu, ezta zuurkeriaren aurka ere...

—Martiri bokaziorik ez dozu nunbait; konfesoarena bakarrik... (Adimenak berriro.)

—Geiago gustatzen zait konfessore martiri baiño, eziñ ori ere ukatu...

—Eta bildurra dala-ta Meza zenduke Pazko-Egunean..?

—Ori ere ez!

Bere buruarekin eztabaidan igaro eban gau osoa gure apaiz onek. Gezurretan ari ote zan soviet-gudaria? Egitan

ari ote zan? Nolajakin pruebarik egin gabe? Bere Jainkoaren eskuetan ipiñi eta pekatu guztien barkamena eskatu euzon: —Jauna, zure naia bete dedilla. Ez dot nik korapillo au eskatzeko aalmenik.

Yagi eta bizarra kendu ondoren, eleizara txiliña jotzera. Sokari eskuekin eldu eutsonean, biotza zeukan neurri-gabeko taupadaka: —Latzta dok eskuetan soka au. Nere urkamendiko soka ote..? Ez dok leuna izango samea estutuko daustanean... Zalantzik urten bear: —Jainkoaren izenean! Ori esanaz batera ekin deutso sokatik tiraka gora ta beera: Tilin talan, tilin talan, tilin talan...

Enara bizkorren antzera kanapi soiñu alaiak arbolatik arbolara, etxetik etxera, malkorretik malkorrera, menditik mendira agur zoragarria kantari... Erriko oge guztietan izua zegoan, tristurarekin batera, kokoldurik. Egoera larri aretan kanpai-ots alaiak zarrada eragiten eutsen kristau bildurki arei bizkarrean gora: —Zer asmo txar ete erabilleten buruetan Errusiako soldadu sinisgabe areik Pazko-Egunean kanpaiak jotzen asteko..?

Leioetako kurtiñapeetatik ikarak zabalduriko begiak agiri ziran nun-nai. Biotza kuskurturik, arnasea geldirik, oiñak loturik... Zer ete zan a..?

—Mezatarako deia da. Joango gera..?

—Ez, gizona, Jainkoak daki kanpaiak zeiniek jotzen dituan..!

—Apaiza izango al da joalea...

—Ez burutik eginda ez ba'dago. Ori tranpea da.

* * *

Bigarren kanpai-saiorako Yuska elizan da.

—Egun on, Yuska. Iñor ba'da kalean..?

—Ez, jauna, ez dot iñortxo be ikusi.

—Lo egin dok?

—Ez asko, jauna.

—Aldarako argizariak biztu eta liburua iriki.

—Nik, jauna, konpesatu nai neuke aurretik...

Yuskak bere bizi guztiko pekatuen barkamena eskatu dio Jainkoari etabere ordeko dan apaizari. Ondoren Mezatarako jantzi da apaiza.

—Begira, Yuska, elizan iñor dagoen.

—Iñortxo be ez.

—Jo egik irugarrena.

Irugarrenez kanpaiaren soiñu alaia, kaleetan zear, etxeetako ate-zirrikitu artetik, baserritar bildurki arein belarrietan kokatu da:

—Ze deabru ote dabil kanpai-joka..?

—Ori tranpea dala gu iruzurtzeko. Engaiño utsa.

Meza asteko ordua da. Eliza utsik. Iñortxo be ez da agertu.

—Zertarako etorri ete gara, Yuska. Engaiñua dogu eta tranpan jausi gara.

Iruzur egin gaitue. Beste guztiak gu baiño zurrangoak tonto lehiko galantak gu...

—Gaur Pazko-Eguna dogu, Jauna.

—Bai, ori bere alan da. Geure buruak arriskuan jartzerik merezi du dau. Goazen!

Urten dale aldarara: —In nomine Patris et Filii et Spiritus Sancti... Elizako atek txirrioka. —Koipe gutxi dau ate orrek (pentsau dan aladeak). Bat-batean apaizak eta Yus-

kak, biok batera, atzera begiratu dale: —Nor ate da? Nor izango eta soldatu komunista da sartu dana elizan... Danba, danba, danba... Pauso bakoitzaren danbadak ormeetan gora dijoaz, eliza-goienak arrapatu arte. Zapaian jo eta beera datoz berriro: danba, danba, danba...

Aurrera dator. Apaiza eta bere akolitua, biak mututu dira. Izarditik bekokiak otz. Bizkarretik barrura bala baten ziria noiz sartuko dagoz ixil eta geldi. Danba, danba, danba pausoak aurrerago eta urrerago. —Ain gertutik ez dau utzik egingo (apaizak berekiko). —Ene Jainko, artu egizu nere anima (Yuskak otoi). Pausoak gelditu egin dira. —Oraintxen asiko da tiroka... Ez, ba... Belaunikatu egin da... Dominus vobiscum. —Et cum Spiritu tuo.

Izardi larritan, Meza aurera doa. —Noiz sentituko ete dodaz bala-zuloa bizkarrean..? Zertan ete dago?

Meza-erdikoa. Tilin, tilin...

Jaunartzea. —Orain asiko ete da tiroka..?

—Txiist, txiist..! Gudariak.

Yuskak eta abadeak, biok batera, eragin dautsoe buruari atzera begiratzeko...

—Komunioa emateko..? Gureak egin jok oraintxen...

Une onetan garbituko gaitu...

—Ecce Agnus Dei... Ona emen Jainkoaren Bildotsa...

Ez da tirorik.

—Kristoren Gorputza.

—Amen.

Sobiet-gudari izardunak Jauna artu dau apaltasunaz. Yuskak eskuetan daraman zillarrezko bandejatxoan eun rubloko diru-papera dar-dar...

* * *

—Garai aietan eun rubloko papera diru aberatsa zan, sinistu eidazu.

—Soviet ofizial aren barririk izan al zenduen geiago, Yuska?

—Ez. Etorri zan bidetik joan zitzaigun iñungo aztarnik utzi gabe.

—Nik usten neban ruso guztiak adardun deabruak zirela...

—Oietakoak be izango dira, eta nun ez? Baiña kristau zintzo bildurgabeak be bai dirudienez...

* * *

Yuska, gerrateko goseak eraginda edo, birikietatik gaitotu zan. Sendatzeko biderik ez errian eta erbestera exilatu bear bere burua. Urte asko dira Hungriatik alde egin ebala eta Erroman ezagutu neban. berak esandakoak sinisten dodaz. Bera bait zan gertaera onein lekuko eta testigu.


ARRINDA'TAR ANES

MUNGIARRAK BIZI-BIZI DIARDUE LANEAN

UDAL-BATZA BULTZAGILLE DALA.

ONA EMEN ATERA DABEN ALDIZKARI EDERRA!

- Erriko lanak
- Mungialdeko barriak
- Kondairako jakingarriak
- Literatura
- Musika
- Osakuntza
- Argazkiak
- Margolaritza
- Kirolak...



.... Beko-kaletarra naz,
arri-bitsiz sortua,
jakintza zalea ::
Aldizkari emea,
zatoz gure etxera,
osasun alzea

Paulin

50 PTA.

1984'KO GURE LANEN BARRIA

Urte-barruan egin diran lanen barria emotea atsegin-garria izaten da, lankide EUSKERAZALE mateiok, lanak egitea bera baiño atsegingarriagoa beintzat. Eta urteroko Batzar Nagusi onetan barri-emote au egitearen zeregin atsegingarria neuri dagokit aurten, gure Zuzendari jauna ondo-ezik aurkitzen dalako.

EUSKEREAA

Gure alkar-tearen zeregiña beti izan da euskerea eta gure izkuntza onen Bizkai'ko Euskalkia irakastea, eta aurten be gogotsu jarraitu dautsagu lan eder oneri. Alkar-tearen izenean, beioakie gure esker ona irakasle guztiai eta gure begirapen maitetsua ikasle izan diranai.

Ikasleen kopurua ez da ugaritzen, baiña ez arduratze-ko bestean urritu be. Orretan, kopuru-maillan, beti lez jarraitzen dogu, gitxi gorabeera eta 300 izan dira aurtengo ikasleak, 20 taldetan.

Udan izaten dan alkar-izketarako ekiñaldian be beti lez jarraitu da eta 80 izan dira etorri diran ikasleak, oneik egunean ordu bi egin dabez euren euskera ikasia erabilteko erreztasuna lortzen, 16 egunetan.

* * *

ARGITALPENAK

Euskerea zabaltzearen arloan egiten dogun beste lan bat gure argitalpenak dira. Argitaratzea izaten da arazo bat eta bear dan bestean zabaltzea beste bat, eta, naizta geuk nai genduken bestean saldu ez, gure liburuak izaten dabez erosleak eta argitalpen barriak be egin bear izaten dira: Iniciación al Euskera, Nora Zoaz, Giza Soñia, Irakurgaiak, X. Peña'ren Gramatika (onegaz batera kasetak), "Ikas" Iztegia (Au oraintsu Montiano'k gure esku itzia), Jose Luis Beobide'ren ipuiñak...

* * *

EGUTEGIA

Aurten bostgarrenez atera dogu eguneroko orritxua daukan egutegia, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxaren laguntzaz. Ziur dakigu egutegi au euskaldunen etxeetan onartua izaten dana eta Bizkai'ko Aurrezki-Kutxari gure esker-ona agertu bearrean gagoz.

Egutegiaren zabaltzeak be ba-dauz bere arazoak, baiña aurten obeto bete dala lan au uste dogu. Dana dala, batez be liburu-dendak bide dirala, lan geiago egin bear dala dirudi, Aurrezki-Kutxak berak egiten dauana toki guztietara eltzen ez dalako.

Lan au egiten jarraitzeko asmoa daukagu, orain-arterko laguntza izaten ba'dogu beintzat.

* * *

IPUIN-SARIKETA

Ba-dira lau bat urte EUSKERAZALEAK ALKAR-TEA'k urteroko Ipuin-Sariketa eratzen dauala eta, aurkezten diran lanak ain asko izan ez arren, guztiak izaten dira ipuin-lan onak eta ez da erreza izaten saria zeñeri emon erabagitea.

Aurten lau sari ezarri ziran: 1.^a, 40.000 pta.; 2.^a, 30.000 pta.; irugarrena 20.000 pta. eta 4.^a 10.000 pta.

Sari-irabazleak oneik izan dira: 1.^a Bergaretxe'tar Jon Joseba'k, 2.^a Zubikarai'tar Augustin'ek, 3.^a Erkiaga'tar Eusebio'k eta 4.^a Lejartza'tar Sebastian. Zoriona eurai EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izenean.

Sariketa an egokia dala uste dogu idazle zarrak indartzeko eta barriak sortzeko, baita gure Bizkai'ko euskerea aurrera aterateko be. Orregaitik, urrengo urteetan be dei au egitea ez dogu alboratuko.

* * *

BIZKAIEREAREN ASTEA

Ona emen, lankide eta euskerazale agurgarriok, aurten asi dogun ekiñaldi barri bat: Bizkaierearen astea.

Urrillaren 14'tik 18'ra izan zan, Eskolapioen Ikastetxean eta batez beste egun guztietan eun bat entzule izan ziran.

Izlariak eta gaiak oneik: Aita Onaindia'k, Olerkia Bizkai'ko literaturan; Rementeria'tar Jose Maria'k, Euskerea Bizkai'ko Kristiñau-Ikasbidean; Zubikarai'tar Augustin'ek, Antzerkia Bizkai'ko euskeran, Akesolo'tar Lino'k, Elebarriak Bizkai'ko euskeraz eta Urrutia'tar Ander'ek Eskribauak eta euskerea len eta gaur.

Itzaldi oneik ZER aldizkarian argitaratu dira eta guztiak batera liburu baten argitaratzea da gure asmoa.

Aste au be onuragarri izan dala uste dogu gure asmoak beteteko bidean eta aurten be antzeko astea egitea gura genduke.

* * *

"ZER" GURE ALDIZKARIA

Bizkai guztian zabalduta dagozan EUSKERAZALEAK sendi baten lez alkartzen dauzan lokarria dogu

ZER gure aldizkaria. Aurten arazo barri bat izan dau aldizkari irakurgarri onek, irarkolea aldatu-bearraren arazoa. Olako aldaketak zeregin bereziak eta arlo askotan lana barriro asi-bearra sortzen dabe. Zori onez ba-goaz arazo orreik bideratzen eta aldizkaria illerik illera illearen erdi-ingururako beti edo geienetan agertzen da, iñoz apurren bat atzeratu ba'da be.

Beste aldizkari batzuk estu ta larri ikusten doguzen artean, gure ZER ikara aundi barik doa aurrera, EUSKERAZALEAK, Bizkai'ko Aurrezki-Kutxa, Aldundia eta pizka bat Eusko-Jaurilaritza laguntzaille dauzala.

* * *

MARRAZKI-SARIKETEAK

Urte-barruan agertu dan eta beteten asi garan asmo barria dogu au.

Liburuak apaintzeko marralariak urri daukaguzala ikusita, baita komikak edo ipuin marraztuak egiteko trebeak aurkitzea be erreza ez dala izaten ikusita, olako langilleak aurkitzeko sariketa bat eratzea asmau dogu, aurtengoz Beobide'tar Jose Luis Aitaren ipuiñak apaintzea izango da lana (bigarren zatia, lenengoa len argitaratuta dagoan ezkerre). Sari bakar bat ezarri dogu 100.000 pezetakoa lan bat baiño bear ez dogulako eta ba-dira ogei ta amar bat ertilari ipuiñak eroan dabezenoak. Biar amaitzen da lanak ekarteko epea, baiña amabost eguneko luzapena emon dautsogu, zabalkundea beranduegi agertu dalako.

Ekintza onek ondoren ona izaten ba'dau, urrengo urtean ipuin marraztuen edo komiken sariketea egiteko ustea dogu.

ITZULTZAILLE-LANA

Geroago ta geiago dira EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren etxera bialtzen dabezan itzulpen-lanak eta lan luzeak egiteko asti larregirik izan ez arren, alegintzen gara egokiro erantzuten.

Bizkai'ko Eleizaren Batzar Nagusirako be itzultzaille-lanak egiteko eskaria daukagu eta baietza emonda dago.

* * *

AMABOSTEROKO BATZARRA

Alkartearen Batzordeko garanok amobostero egiten dogu batzarra guztiak edo geienak batzarkide dirala olako edo antzeko ekintzak eta Alkartek dauzan arazoak bideratzeko. Zori txarrez, guztiok lanpetua egoteak galga aundia ipinten dautso lan egin-gureari, baiña bakoitxak al dauan neurrian erantzuten alegiña egiten dau.

Orra or, entzuleok, 1985'eko gure zeregiñak eta lanak. Zuek esan jokabidea ta asmoak egokiak diran edo zer egin leiken egin barik dagoanik. Gu entzuteko ta ekiteko gertu gagoz. Eskerrik asko!

OLAZAR'TAR MARTIN
(Zuzendari-Ordea)

ZER**ALDIZKARIA**

- ILLEROKOA (MENSUAL)
- BIZKAIERAZ IDATZIA (EN BIZKAINO)
- ERRI-JAKINTZAREN GAIK (MATERIAS POPULARES)
- IRAKURGAI ERREZ-ERREZAK (LECTURA FACIL)
- ARAZO SAKONAK AZTERTUTA (ANALISIS DE TEMAS)

ARPIDETU ZAITE!

ZER
EUSKERAZALEAK

Colón de Larreátegui, 14-2.º - BILBAO-1

KILI-KILI

Orain 18 urte sortu zan KILI-KILI. Elburua: Ume euskaldunen euskerea. Eragiña: Abertzaletasuna ta kristautasuna.

Aldi aretan euskerea eskolara eroatea eziña zan, baiña etxeko, kaleko eta eskola-inguruko euskereari eutsi eta bere aldeko giroa sortu, bai aal zan zelanbait. Eta oneri ekin dautso KILI-KILI'k ainbeste urtetan eta orixe berberori egiten diardu gaur-egun ere.

1984 urtean leengo ekintza zaarrai jarraiturik beste barri batzuk sortu ditu KILI-KILI'k. "Ikastaroa", "Aldizkaria", "Kili-irratia" eta dira zarrak; "nik zuri, Zuk niri" izeneko sariketea eta "Kili-Txorta" izenaz liburuxken argitalpena dira barriak.

Ona emen zeatzagi:

KILI-IKASTAROA

Aurrera eroan da; ez leenagoko eran, ezta leengo indarragaz ere, baiña aurrera azken baten. Euskerea eskolan sartu dan ezker, alfabetatzeko premiñarik ez dagoala uste dau jenteak.

ALDIZKARIA

Au ere aurrera eroan da. Alde batetik obetu egin da, erdiko orrialdeetan euskal ipuiñak argitaratuz; baiña beste aldetik, erren gabiltz egilleak bere sasoiari atera eziñik.

KILI-IRRATIA

Bi izan dira joan dan urtean: Bilbo'n eta Arrate'n. Astean bein, zapatuetan, umeakaz eta nagusiakaz ordu bateko irrat-saioak. KILI-KILI'k gero eta garrantzi andiagoa emoten dautos ekintza oni.

Leenagoko ume euskaldunak ez ekien irakurten eta idazten euskeraz baiña berba egiten eben parra-parra; gaurkoak irakurten eta idazten ikasten dabe eskolan baiña euskeraz egin, gero eta gitxiago.

Gaurko umeak entzun egin bear dabe asko, Leen, begia, ikusmena, oitu bear izaten eben euskeraz irakurri eta idazteko; orain, belarria, entzumena, ulertu eta berba egiteko. Ona emen betebearra dan beste zeregin bat.

KILI-KILI EGUNA

Ez da ospatu jaon dan urtean, baiña KILI-KILI jai-aldi txiki-ak bai egin dira erriz-erri bizkaian.

NIK ZURI ZUK NIRI

Sariketa oni buruz ezin da oraindiño gauza aundirik esa. Elburuak eta asmoak aitatu bai, baiña ondorenak oraindiño ez. Joan dan urtean asita, oraindiño ez da amaitu. Zabal da Bizkaian, baita Araban be zelanbait. Arrera ona izan dau bietan, Gipuzkoak eta Naparroan iraintxe asiko da.

Elburua auxe da: Diru-oztopo barik umeen eskuetara irakurgaiak eldu-azo eta euskeraz irakurteko zaletasuna sortu umeen biotzetan.

Millaka eta millaka ipuin, komiki, aldizkari eta sariak bananduko dauz KILI-KILI'k umeen artean, duan, baiña zelanbait irabazita. Irabazbudea: Oso erreza, danak jaristeko modukoa, joko-eran eta atsegiñez.

KILI TXORTA

Beste ekintza bat, esandakoari begira. Izen onegaz iru liburuxka argitaratu dira: Euskal ipuin bi eta komiki bat. Laster euskal komiki bi eta ipuin bat argitaratuko dira.

Ez dira saltzeko, umeen artean sari-eran zabaltzeko baiño.

KILI-KILI ez da sal-erosketa egiteko enpresa bat. Eta orxi ezin dabe ulertu askok Jaurlaritzan, Erakundeetan eta kalean.

AZKENA

Beste ekinza asko egingo leukez KILI-KILI'k, baiña ezin. Gitxi dira lan egiteko. Gazteak bear dira, erri-miña daben gazteak: Abertzaleak. Gitxi dira.

J. A. RETOLAZA'k

GAUTEGIZ-ARTEAGA'N, EGUN ZORAGARRIA

Erri polit onetan, aintxiñatik Polikarpo Deunaren eguna ospatuten dabe jai alai ta eder batzuekin.

Aurretik, egun orretarako gertatzen da, erriko txoko guztiak apaindurik.

Aspaldian joan naz erri orretara egun ori ospatutera, ogeita iru urtean bizi izan nintzalako bertan.

Urte geienetan ARTUKIZUNA euki dot abeslari, pelotari edo beste zer egin batzuetan.

Bertan, neure bizitzako IRU zatitik BAT, igaro dot edo emon dot.

Niri asko atsedenduten yat Arteaga'ko jentean berba egin ta ikustea.

Orregaitik nire BIGARREN erria Arteaga da, neure jaioterriaren atzetik.

Bertako gizakiak nigaz beti, ondo baiño obeto, jokatu dabelako.

Ni esker aundiak emoteko zorrean nago ango notinei

Nire seme-alabak be bi an jaio ziran ta AZI be bai, ta ango taloagaz seme ederrak, sendoak, gogorak ta osasuntsuak aundi egin be bai.

Aurten Polikarpo egunean, zelan nengoan ASKE, asmau neban bertan arteagatarrekin egun pozgarri bat igarotea.

Alan izan zan, bene-benetan pozgarria, atsegingarria ta oso alai. An aurkitu nebazan lanagoko ikasleak, gurasoak, ta zarragoak bebai. Danakin ALDIZKATU nintzan ondo baiño obeto ta genera, dan-dena euskeraz. Egun pozgarria arazo onetan ere; orain 20 urte inguru, asko gaztelera mintzatzen ziran, baiña orain danak denbora osoan EUSKERAZ.

MEZEA

Badakizue, lenagoko ta oraingoko denboretan, goizean beintzat, goizeko zer egiñik ALTSUENA, mezea izaten da, ta orain be bai, erriko jaietan.

Ondiño denbora asko ez dala, MEZA nagusia abestzeko mutillak ta neskak abestuten eben IRU ABOTSETARA Perosi, Refice ta Goikoetxea'ren mezak. Une onetan ez dago olakorik. Batikano ELIZ-BATZARRETIK onantz oitura ori joan zan.

Aspaldian ERKIDE guztiak izaten dira MEZEA abestuten dabenak.

Ta askoz obeto dala esan geinke, bestela jentean askotan LO egiten daualako, opari onetan AURKIZUN geia-

Arazo onetan ALDAKIZUN aundia dago. go artu bearrean.

Egia esateko ikaratuta, arrituta gelditu nintzan zelan jentean abestuten eban. Nire eskuma-aldean egon zan Bilbo'n dagon emakume bat ta ezkerreko aldean bertan bizi dan bat. Ezin esan zeinek obeto erantzuten eutsen otoiizeri ta kantuei.

Baiña ez ziran oneik bakarrik, erri guztia izan zan otoiizeri ta abeslari. Igandero egiten diran gauzak ez dira aiztuten.

Gernikako Bikario Nagusia izan zan MEZA-EMOILE, beste lau abadek lagunduta. Oneitatik bat erriko txauburua zan, beste BI erriko semeak ta laugarrena Kanaleko txauburua.

Eliz-izlaria Bikarioa izan zan. Labur-laburrean, oso polito ta egoki, azaldu eban Polikarpo Deunaren bizitza. Bera bizi izan zan lenengoko mendean, askeneko urteetan, Jon'en ikaslea izan zan.

Bere bizitza luzea izan zan, ta azkeneko urteetan judeotarrak santuak bere sinismena UKATZEA gura eben.

Orduan zalantza barik esan eban Polikarpok:

Orain artean Jainkoarena izan naz, ta aurerantzean zergaitik ez? Gurago izan eban sutan erre bere burua, bere sinismena UKATUTEA baiño.

Alan sutara bota eben judeotarrek ta onelan EMAN eutson bere arimea Jainkoari.

Mezea amaitu zanean, jentea joan zan Polikarpo'n KUTSU bateri mun egiten.

AMAIKETAKOA

Arteaga'ko erriak ta agindariak gauzak ondo egiten dakie.

Erri au aberatsa da, auzoko mendi zati aundiak udaletxeak diralako.

Atxarre deritxon mendia geiena Udaletxekoa da Eleizpean ipiñi euskun Amaiketako bikain bat. Txanponak ludi onetan gauza asko egiten dau.

Janari ugaria, sendoa ta garbia ipiñi eben ango agindariak ara urreratu ziran guztieentzat. Ta ganera Errioxako ardau zuri, baltz, ta gozoakaz naiztuta.

Emakume ederrak, ondo apaindurik, izan ziran serbitzailleak, arpegi alaiagaz ta itz gazoakaz banatuten eben pozik.

Jente dana andik aldendu zan oso pozik.

ARTEAGA ERRI ABESLARIA

Esan dot Meza oso ondo abestu zala.
Arteaga beti izan da **ERRI-ABESLARIA**.

Nik 'Arteaga ezagututen dodan ezker, beti ikusi dot **ABES-BATZ** ugaria ta bikaiña. Gauza onek bere **ERRE-ZOIA** dauka.

Errian aspaldian beintzat egon dira **ZUZENDARI** onak, jakintsuak.

Ikusi daigun:

Bat **MARIA ANGELES TELLERIA**: Bere bizitza eskeindu edo opatu eban eleizari laguntzen, txiroari konpainiatuten ta erriko neskatoei kantuak erakusten. Ta atsegingarria zan maiatzeko lorelara joatea, neskak zelan abestuten eben ikusteko ta entzuteko. Ez bakarrik maiatzean, beste edozein jai edo egunetan be bai.

ON HONORIO JAUNA: Orain Aitaren etxera joandakoa. Goian bego. Denbora askoan izan zan organistia ta nagusien zuzendaria.

Gozotasun aundia eukan "Canto Llanua" abestuteko. Esan leikian aingeru bat egoala abestuten.

ITURRIAGA JAUNA: Eragille edo Konpositorea,

organista entzute aundikoa. Egon zan Madrillen Franzisko Deunaren Eleiza Nagusian.

Gero gure Bilbo'ko Begoñako Eleiza Nagusian organista egon da ta orain Jubilaua.

JOSE BEASKOETXEA GOITISOLO: Zuzendaria, abeslaria ta organistea. Bere **ABOTSA** ugaria, samurra, altsuaga Gernika inguruko eleiza guztietan entzuten zan jai egun edo edozein egun aunditan.

Bere abotsa naiko izaten zan, eleiza da-dana beteko.

Polikarpo egunean berak jo ta abestu eban Arteagako eleiz nagusian.

Egun orretan **AGUR-ABESTI** batzuk abestu ebazan ta gozatu eban mezea.

Onein ondoan ba-dagoz leen be bai ta orain ere, sarritan joaten diranak edozein elizkizunetan meza kantatzera ta ederto igiten dabenak.

Oneitako batzuk dira: Argatxa, Arza (lengo Txinela) Echave, Biktór Uriarte, ta abar.

Azkenez **BASABE JAUNA**. Beti gertu edonun lana egiteko, laguntzeko ta elizkizunetan abestuteko, ta ederto bere abots **BERAKOAZ**.

ARTEAGA'KO TXOKO BARRIA, EDERRA

Oraindik denbora luzea ez dala egin dabe Arteaga'ko gizaki adoretu batzuk danak alkartuta, **TXOKO EDER BAT**, benetan ederra, nasaia, zabal, ta egokia.

Euskalerrian orrelako asko dagoz ala ta ere Gipuzkoan.

Toki ori abegi ederrekoea da.

Lengo urteetan arditegia izana zan toki ori. An egoten zan aldi talde bat lotarako udabarrri inguruan, gipuzkoatik etorrita.

Orain dala 150 urte, Bizkaiko **ANDRA** entzute aundi-ko batena izan zan **GAZTELU** eder ori. Bere serbitzailleak eukazan zaldiak leku ortan, zalditegia zan.

Lenago Andra entzute edo fama aundikoa izanik, Napoleon Bonaparte gaz ezkondu zan 1853'garreneko urtean.

Bere etorkizuna obeto gogoratzeko edo gogominerako egiña izan zan **GAZTELU** ori. Orain apur bat bastertuta dago zelai eder baten erdian.

Arteagatarrentzat **AUNDIKERI** bat da, gaztelu ori jabon edo gordetzea. Oñau Arteagako dirudun gazte batek beste gernikar bateri erosituta dago.

Urte askotarako izan daitezela.

Gure **TXOKO BIKAINA** toki orretan egin dabe, Arteaga'tar gizaki **ADORETSU** alai ta aldi oneko batzuk.

Asko ta askoren izenak jakinarren, ez noa izenik ipinten emen. Bat baiño geiago itxiko neuke. Okerrik ezegiteko ez noa bat ere ipinten.

Baiña auxe biotzez diñotzuet: Toki ori izan daitela batasunerako, bakean biziteko, aldi onetan egoteko, ta danen onerako.

Besterik ez dautzuek nai. **AGUR** danori. Zorionak.

BAZKARIA

Neure gogoaz joan banintz toki eder bat topetan olako egunean, baskari bat jatera, ez nenduan topauko iñun. Dana izan neure uste barik.

Aintxineko ta auzoko lagun batek besotik ebatu ta eroan ninduan bere etxera bere Andrea agurtzeko, Maria Angeles Legina ta bere etxe aderra ikusteko. Gizon ori ez zan nire ondolik aldendu egun osoan ta etxera eroan arte bazkaltzen.

Jaun orren izena **BIKTOR URIARTE** da, apala, langillea, benetakoa. Ameriketan 23 urte eginda biurtu da bere etxera dirutxua eginda.

Olan portetako adoretua izan bear da.

Etxeari barriztasun ederra emon dautso ta orain esan lei, jauregi etxe eder bat dala.

Bizitza orrek erreztasun ta lasaitasun era guztietakoak daukaz.

Gela aundiak zabalak ta argi ugarikoak.

Aizea ta argia edonun sartzen da ugari. Benetan **BIZILEKU** pozgarria. Beretzat ta lagunentzat **TOXO BIKAIN** bat egin dau. Danak olakorik ezin leia egin.

Maria Angeles ba-nekian sukaldari ona zala, baiña egun orretan oso ederto portau zan bazkaria gertatzen.

Ugari, garbi, ta gauza bikaiñak gertatu euskuzan zortzi gizakientzako ta dana oso ondo egon zan.

Eskerrak Andra-Gizon biori, olako eguna igaro nebalako zuen artean.

Zegaz ordainduko dautzuet? Al dodana egingo dot. Ezker txarrekoa ez izateko. Agur.

ISIDOR ETXEBERRIA

IGALIAK URTEBIDE

“Pare bat edo iru ektarea lur ona fruta ipiñiz sendi batek bizitzeko bear dauen beste atara leiteke euretatik.”

Onetariko gauzak iñoskuzan Ramon Azpiazu jaunak, Bizkaiko Foru aldundiak Zallan daukan igaligintza ikertokiko arduradunak.

R.A.'k.—Bizitzatik bizitzara aldea dau baña mota onak ipiñi ezkerro eta jagon edadura edo zabalera orretan atara leiteke sendi batek bizitzeko bear dauen beste.

ZER'ek.—*Baña lan andia emongo dau orretariko saille batek?*

R.A.'k.—Ez pentsau orrenbeste danik ere. Bere sasoiak daukoz; au da, batzeko sasoiari, iñausketa edo poda sasoiari eta Udabarrian bearrezkoak ditun tratamendu batzuk egiterakoan. Baña ez da larregirik.

ZER'ek.—*Mota edo klase ona esan dauskuzu baña zein da klase ona?*

R.A.'k.—Bertoko sagarrak dira onenak. Naiko ondo saldu leitekez eta askotaz ere arazo gitxiago dauke gaisoe-kaz. Gu Ameriketako sagarrakaz asi giñan baña eman

dituen arazoak ikusi ondoren bertokoekaitik aldatzen gabiltz. Berrogei bat mota inguru sagar izango doguz guk emen eta beste ainbeste madari.

ZER'ek.—*Eta saltzeko orduan?*

R.A.'k.—Kontuan euki bear da emengo jendeak sagar garazkiñak gura izaten ditula eta onetarikoak emengoak direla. Beste alde batetik merkatuan edo azokan ia ez dau emengo sagarrik. Beraz naiko ondo saltzen da. Beste klase batzutan ez daukagu kanpokoagaz konpetitzerik: baña emengoak tratamendu gitxiago eskatzen dabenez eta bere bai sailla txikiagoak, askoz ere onuragarriagoak dira.

ZER'ek.—*Zuen zeregiña emen zein da?*

R.A.'k.—Ona datorzan interesatu guztiei lagundu. Au da, abonua, botika, arbola mota, iñausketea, ezititza, produkzioa, aurrerakuntza zein beste edozein arazori buruzko aolkua emon. Edozein etorri leiteke ba ona aolku-billa.

GORRINO

PAUPER PAUPERRIMUS

Goizak zure ate bako etxean jo dau mailuko ta esku betez dakartsu ozkirri orlegi ezititsu eguneko gozari. Burrundadaka joatzuz —zure odolak zearkatuz— itxaroak igari.

Argi-zukuz sakel bero larrara zara zu gero, ametsezko abereen unai, aberats guraren utsak bilduz zorrora. Adarrik bako idiak, gose adartsu lodiak topeka mendi gora.

Ostikopean, antxe zu bildur ikaraz izu; eskuan —larri ta kiki— etsipen narruzko abail alaruak jaurtika. Iñor iñoiz joko ete? Ziur dozu egi bote alperreko arrika.

Ta gosea bazkalduko, eguzkik kuku betiko eta erri eguerdian. Zugaitz bako artadian gerizpea igarra. Nork bilduko, nungo izarak zure otzaren dardarak? Au utsaren negarra!

Zure pena mengotsakin oretua dozun irin bako ogia apaldu. Gero ogera berandu izarpeko bezero. Gose-agifiñen bildurak etaezaren apurak ekarriko lo ero.

BIDAGUREN

IZENIK ETE DAUKO

Leunkiro dator euria mendiak ur asetzen Beko aldian iturria abarua poztuten. Egarriz dator bidari bide luzia eginda, joi, zelan metal ur orrek kentzen daun egarría! Olakorik ezta saltzen kristalezko ontzian, izki andiaz bere izena paperan ipiñita.

Geure errien iturria zu zara olerkaria. Abestu, idatzi ta esan sarritan olertiak, ezta biar danak batu ta saldu idaztegian. Emon, emon ur garbia doala aldape bera, berak bigurtzen daulako geure lurra emankorra, pentzeu beti orixe dala asaben ondasuna.

Iñok edaten daunian euzko gogua bertan, irikiten bere odola biotza barrenian, ta bere arima dardarez asabakaz batera, iñoz, arren, ez esan “edaten dozun ur ori nigandik urtea da”.

UTARSUS

ABEREA

Cuervo (Lukas 12, 24)

Fijaos en los **cuervos**.

Lei: Konsidea itzazue **beleak**.

Duv: Begira **beleei**.

Ol: Begira **beleak**.

E-B: Begira **belak**: (Ikusi Azkue'ren "Morfoloía Vasca", 511 orri., 12 lerroa.)

Buitre (Lukas 17, 37)

Donde esté el cadáver, allí también se reunirán los **buitres**.

Lei: Non-ere izanen baita gorputza, hara bilduren dirade **arranoak**-ere.

Duv: Non-nahi izan dadien hilikia, **arranoak** ere harat bilduko dire.

Ol: Sarraskia non, **arranoak** ere araa.

E-B: Gorpua egon daiten tokian, antxe batuko dira **saiak**.

Aguila (Agerpena 4, 7)

El cuarto viviente es (era) como un **águila** en vuelo.

Lei: Eta laugarren animala hegaldaz dabilan **arranoa** bezalako zen.

Duv: Eta laugarren abereak iduri zuen hegaldaka dohan **arranoa**.

Ol: Ta laugarren iizea, egaka **arrano** irudiz.

E-B: Eta laugarren biziduna **arrano** egalari antzekoan.

5. ABEREN GORPUTZ-ATALAK

Ala (Agerpena 4, 8)

Los cuatro Vivientes tenían (tienen) cada uno seis **alas**.

Lei: Eta laur animalék zutén batbederak zeinek bere alde seirá **hegal** inguruan.

Duv: Eta lau abereek bazituzten seira **hegal**.

Ol: Lau iizeok seina **ega** dituzte.

E-B: Lau bizidunok seiña **ego** eukezan.

Cuerno (Agerpena 17, 12)

Los diez **cuernos** que ves (has visto) son diez reyes que no han recibido aún el reino.

Lei: Eta hamar **adar** ikussi dituanák, hamar rege dituk zeinék resumá ezpaitute oraino hartu.

Duv: Eta ikhusi dituzun hamar **adarrak**, dira hamar errege, erresuma izatu ez dutenak oraino.

Old: Ikusi dituzun amar **adarrak**, yauraldia oraindik artu ez duten amar errege dira.

E-B: Ikusten dozuzan amar **adarrak**, oraindiño erregetza artu ez daben amar errege dira.

Cola (Agerpena 9, 19)

Porque el poder de los caballos está en su boca y en sus **colas**.

Lei: Ezen hayén botherea zen hayén ahoan eta hayén **buztanetan**.

Duv: Ezen zamari hekien ahala datza ahoan eta **buztanetan**.

Ol: Ao ta **buztanetan** bait-dago zaldion al izatea.

E-B: Zaldiak euren indarra agoan eta **buztanetan** dabe.

Aguijón (Agerpena 9, 10)

Tienen colas parecidas a las de los escorpiones, con aguijones. (Esanaldi au beste batzuek onetara: y tenían colas semejantes a escorpiones y aguijones ("La Sagrada Escritura", por Profesores de la Compañía de Jesús. BAC.)

Lei: Eta zituztén buztanak skorpionenak irudi: eta zituztén **eztenak** bere buztanetan.

Duv: Eta zituzten buztanak harrobienak iduri, eta **eztenak** baziren hekien buztanetan.

Ol: Lugatzeak bezela, buztan ta **eztenak** zituten.

E-B: Lupuen eta **eztenen** antzeko buztanak eukezan.

KEREXETA



UNAMMUNO'REN ZALETASUNA

Euskaldun guztiok dakigu nor zan Unamuno: Bizkaitar bat, Bilbon jaioa. Gurasoak be euzkotarrak ziran ta ama beintzat euskalduna, diñot, euskeraz ekiana.

Euskeraz ikasi eban, eta ikasiko eban ondo, erderazko atxex idazten dan berbeak esan gura dauana "hondo", sakonez, emen Bilbo'n Instituto Vizcainon Euskal Irakasle izateko azterketak edo aurkezpena izan eban-eta, baiña azterketan Azkuek ta Sabino irabazi eutsoen.

* * *

Salamanka'ra urten bear eban. Augaitik, bera santua ez izanez, bai giza-zale ta griñaduna, Euzkerea'ren aurka zentzubage astakeriak esan ebazan. Euskaldunok parkatu egin bear deutso-guz, begirunez bere adimen andiari, urrean España'ko goren-gorena ta bearbada munduzabaleko andienetarikoa.

Baiña ez dot idazpuruan ipiñi beste gai bat? Zegaitik ba ez darabilt esan dodana?

Lenengo Batikano'ko abadeok Unamuno sinist-ausele bat lez ikusten genduan, eta asi naz esaten esan dodana.

Bizkaitar idazle ospetsu onek sinismen gaietan zentzunbageri itzalak jaurti ebazala badakigu. Alan da gustiz be, bigarren Batikanoko kriztiñau-katolikuentzat gizon buru-argi, arteza, gisa-zale, kristiñau on bat izan leitekeala uste dogu.

* * *

Kristiñau ona zalako maite eban Ama Birjiña, Jainko-Gizon Jesus'en Ama ta beroneri buruz gauza ederrak esan ebazan. Bere Egunkari Barrukoan (Diario Intimo) Bernardo deunak Ama Birjiñeari-eukan eraspen samurra erakusten deusku. Teoloji-aldeetik sakonago ta oñairridunago. Entzun daiogun diñoskuna bere "Egunkari Barruko'an" orrialdi ederretan: "Jakintsuen atekeriraiño, mundua jainko barik iruditeraiño, eldu naz, baiña beti sinismen ixilleko bat Maria Birjiñagan gorde dot. Une larrietan bular barrutik ez-ustean urtetan jatan deadar au: Ama errukierra, lagundu eistazu. Asmau neban seme ondatzaillearen olerkia, amaren erlijioa itzi egin dauana. Gogo-espirtuaren etxea itzitean, atalesaraiño urtetan da Birjiña, ta an negarrez agur egiten dautso, biderako irakaste batzul emonez.

Noizean bein ondatzailleak bere begiak biurtuten dauz eta an urrunean, bide luze ta autsez betean, alde batetik galduten dan zeru-ertzean, agertzen da Ama maitea zutunik atalasean begira zelan joaten yakon semea.

Eta gero nekaturik, saminduta jatorkonean, semea datorrean, onek aurkitzen dau ama berari etxoiten dagoala etxe zar ate ondoan, eta amak besoak zabalduten dautsoz eta laztandu samurkiro barura sartu-azo ta Aitagana eroateko".

Ikustendogunez, Unamuno'k Jaungoiaen biotzkadak ezartzen deutsoz Ama Birjiñeari, Jesus'ek onen Semeak Ebanjelioan erakutsi ta azaldu eskuezanak.

Gure idazle burutsuak teologu sakona dalako gogamen zoragarri oneikaz irakasten gaitu "Maria Ama Birjina misteriotarik bigunena da. Andrea gizarteetan aojakintza oituraen oiñarria da, zalapart, eragiñetan barealdi da, atsedean, guda-burruketan. Birjiña Maria tolesbako da, samurtasunaren Ama. Andreagandik jaio zan Jainko Gizona, gizadiaren barealdirik, onen tolebagetik. Entzuten dira birauak jaurtiten Jaungoikoaren ta Kristoren aurka ta eurok naustauten berba loiekaz, baiña ezta jaurtiten biraurik Ama Birjiñaren aurka. Jesukristo'k iñoan obenak bere aurka parkatuko zirela, baiña ez pekatuak Espiritu Santuaren kontrakoak, eta obenik izugarriena Espiritu Santuaren aurka da bere emaztea iraindu ta onen aurka biraua jaurti.

Jainko Amaren ain maitalle onek okerkeri asko esan zituan Kristautasunaren aurka, baiña ba-ekian zainduten ta aren alde berba egiten.

Nietzsche'ri deituten dautso kristaudiaren maxiolari, guzur irainle amorrutua. Eta beste baten auxe iñoan: "Zein da aukari, protestateen izurria? —Euren katolikutzaren arieriokeria. —Ama Birjiñari protestantiek gitxi gura dautsoela badakigu. Gure Unamuno'k, oster, diño Birjiña dala eder, grazi guztien Ama". Pekatari oroen bitarteko urrengoa zara Gizaki zareanez elduten dan jainkotargana, Zeugandik lortuko dogu jainkotarra gure gizadira jatsi daiten.

Gogoratu zaitez, bai, ez aitzu, bigun, aukeratu Erregiña, gugandik gizon obendunetik zeure duintasun nagusitza guztia daukozula. Zek egin deustu Jaungoikoaren Ama, betiraun Jakituria atsedean artzen dauan Jar-toki? Gure txirotasuna-erezezak berastu zaitu, gure obenak izaki goren-gorengoa egin zaitue. Jesukristo goienegian dago; agertzen yaku argalak gareanontzat lortu ezia. Beragana joaten da apal esaneko dan Maria. Beteraun Jakintza, Jainkoaren asikeran Berbea zana berberagaitiko izaki guztiak egin ziran Irazatea agindu eban jainko Adimena Andra baten gizatu izan zan, Andra bakanean, Maria'gan. Eta Jainko-Gizona esaneko, menperatu egin jakon, Jaungoiko ta gizonen aurrean adifez, grazi ederrez, jakituri az andiago egiten zan bitartean. Eta obena baiño lenago Maria zan, Sortzaillearen eskuetatik urten zan langoa izango balitz, gizadi ereduza".

Onelangoxe gogorapen gorengoak erneten jakozan gure Bilbotar, Bizkaitar, Euskotar, Euskeldun ospetsu entsutetsuari.

Nik beintzat asmo indartsu bat daukot euskeratuteko ementxe, gure aldizkari "Zer" onetan bere idazkiak. Eztakit nundik asi. Orain argituko dan edo argituta dagoan "Abesti-sorta" (Cancionero), "Bakean guda" = "La paz en la guerra", "Nire erlejiñoa" = "Mi religión".

LETONA'K

ARPIDETZEKO TXARTELA

ZER aldizkaria artu gura dot eta bialdu egidazue zuzenbide onetara:

..... 'tar
 kalean (auzoan) zenbakian
 errian, errialdean (probintzian)
 Arpidetzea ordaintzeko diru-etxera (bankura) bialdu ordaintxartela, an daukadan zenbakidun diru-kontura.

BATIKANO BIGARRENAREN ONDORENAK

Eleiza gustientzak barrizte-barrikuntzak Vatikanon II'nak oartu aren, Latino-Ameriketako beste, ifun ez ziran ain sakon ta ondorengo andiangoak.

Eleizea Jainko-erriaren erromes deitutuen barriri asi da —alkarte (komunitate) bizidun aldakari kristiñau siñesdun edestian zear dabilenak, alkarteren garrantzia, ardurea giza autormen ta naimenez artuten dau.

Orrez ganera, autormenezko baliadun gotzain taldeak, irugarren munduan, Eleiza txiroaren alde aukera geienoz, erri-gizan ta eleiz-gizon indar egintzaz, idazteunean oiñarritua, gizarte ekonomiko alkarrea Latino-Ameriketako, argiraiz ta artez ezautzen dau.

Medelin'en Latino-Ameriketako Gotzaiñek Vaticano'ren gogorapen burutasunak ta Latino-Ameriketako gizarte ta politikoko aldaketari berariz ezarri ta eratu eutsoezan, lotuz zati-ezinez Ebanjelio edo kristau-mezukin gizarte-zuzentasuna.

Bakea, zuzentasun ta kristau-mezu Barri Ona baieztatzen dauazan argirapen areik mixiolari ta abadeai eragiten deutsee ikuspegi barriekin euren ziñezkai buruztakizunaren pastoralgintza: ibillaldi asieratik azkatasunera, mezu mixiñoaren norbaiten bideratuagana.

* * *

Ikasbide eskoletan, obekuntza, prestamen batasun ta alkarreetan Eleizeak askotan txiroagan adierazoten dauana, mixiolari askok beste ikuspegi barri batetik ikusi dabe: txirotasuna ezin leiteke argitu ta arindu karidade-maitasunaz. Eurak txirook alegindu beardira orretan eskaz-aldia sortzen daben egiturak aldatzen politika ekin-tza bidez.

Diñogun aldaketa kapitalista dirudunak dirua gero ta geiago aurreratuaz, Latino-Ameriketako Laterrak munduko erri aldun aberatsenen mepenako egingo lirakez.

Aldakuntza egitekotan Latino-Ameriketako jentearen sustraiko politika, gizarte, ekonomiko askatasunez egingo da.

Onetan dogu "entzutentsu azkatasun teologia" gizaldi ogeigarrenaren eztabaidako laguntza katoliku teologientza.

* * *

Bere adierazle aurrengoak Peru'ko Gustavo Gutierrezek ta Uruguai'ko Juan Luis Segundo'k gizarte inguruaren egiazko oar —ikasietan ipinten dabe Teologia— zelan Ebanjelioa irakatsi, adierazi Latino-Ameriketako giza-maillako zapalduai, abenda bastertu ta kultura urruinduai.

Latino-Ameriketako aizaldreen tokarri, lotura korapilto moeta guztietatik-zapaltze, ezjakintza, salpen, txirokeritik askatze iges-egitea azkatasunak esan gura eban.

Adibidez, Guatelama'n eunetik irurogei gizatalde eskola bako dira, ia euneko laurogei ume askuntza urri,

eunetik irurogetamar euren lur gitxi edo lur barik dagozanak, dolar bat baiño gitxiago irabazten.

Teologu batzuk Marxismo erabilen konturatu edobideratzeko gizarte etorpid-ezaren zegaitiak jakin ta aztertzeko. Baiña —jakiña—, geienez askatze-teologu-ek komunismoa eztabe ontzat artuten, politika araudi-erakunde kristautasunagaz alkarre-eziña dalako.

* * *

Ekiñaldi guztietan, orraitio, Eleizea erakunde azterketa lez egiten da, jardun dabil iratzarke, esnagarri azkatasunerako.

Gozain, abade, lekai, batez be, mixiolari-ek aundi-kien taldetatik aldentuten dira ta txiroen laguntasunean bizi gobernu mogimantu ibillera politikoen alderdi barik.

Eleizearena ez da azkatasunaren ekiñaldietan buruzagi agertzea, zeregin eginkizun au ango gizaldreeai iztea baiño.



Ondorengo, Kristiñau Alkarre txikiak oiñarrikko Eleizearen alkarreak arin aringa sortu ta zabaldu ziran Latina-Ameriketako 1960'gn. urtean, ta orain 100.000 baiño geiago dira-, Brazil'en bakarrik 80.000. (Eta oraintsu, gure artean be ba-dagoz.

Parrokien antza barik U.S.'an Bertan oiñarrik endanastuko dira, eta alkarre txiki oneik (geienetan amabost ogetamarrezko lagunarte) ondo batu ta uztarturiko taldeak dira, bardiñezko zeregiñ irabazki, aziketa ta asmo elburuz.

Euretariko geienok astero bein batuten dira Idazteun Biblia gaiak ausnarteko, euren arazoai buruz berba egin, erabagiak artu ta egintza danentzakoak eratu, antolatu: lurra erosi, osasun ardurea obetu, ta aziketa ta lagintzarako era barriak sortu, geiagotu ta biribildu.

EGILUZE

"EUSKERAZALEAK" IPUIN-SARIKETEAK

EUSKERAZALEAK Taldeak, igaz lez, ipuin-sariketea eratzen dau. Sariketa onetara sartzeko, oneik izango dira baldintzak:

- Euskera biziz idatziak izan bearke dabe. Erriak darabilen euskalkietariko bat erabilliaz idatziak.
- Ipuin itzulpenak ez dira onartzen.
- Luzerea, iru orri-alde, bitarte bi lerroartean dituela.
- Epea: Jorraillaren azkenerako gure etxean (Colón de Larreátegui, 14, 2.^a eskoia) izan bearke dabe.
- Sariak: Iru sari izango dira: 1.^a 40.000 pezeta; 2.^a 30.000 pezeta eta 3.^a 20.000 pezeta; 4.^a 10.000 pezeta.
- Ipuin sarituen jabe "EUSKERAZALEAK" izango da eta ZER gure aldizkarian argitaratuko dira. Sari barik geratzen diranak, idazleen esku geratuko dira eta eurak billa etorri bearke dabe.
- Oitura dan lez, ipuina izen-ordeaz bialdu eta izen-orde ori gainean daroan azal baten barruan sartu izen-ordea ta izena batera daroazan txartela.
- Maikoen erabagia, uztailleko ZER'en agertuko da.

MIRUAREN KIÑUAK

Ara, ba doa
an neskatoa,
kalerik kale,
ametsegile.

Ume zoroa
pozak daroa
–apurtu barri
etxe lokarri–

Jantzi txairoa
festa giroa,
askatasuna:
Au zoriona.

Txoriño zuri
egaz iduri
kaiolatik at
aize askerat.

Gau atarian
burdinarian
miru gorriak
kiñu irriak.

Barrura da ta
neska galanta
sin ta soineko
an zikinduko.

A. BIDAGUREN

ATTITTERENA

Attitteren artezaarrak
irurogeita ez dakit zenbat
adar ustel.

Kardantxillo maite goiztarrak
aldegiñak. Aramuz ainbat
kabi epel.

Indurri leku aren enbor
iroan. Ez itzal ez ezkur.
Dana igar.

Aizkolaria laster da or.
Zeren pena? Ez zaitez bildur.
Len zendun lar.

A. BIDAGUREN



HEZTA DE JAÑOSEITIA
 MAXIMO AGUIRRE, 19. 2016
 HB 11 - BILBAO

ZAR

Colón de Larreátegui, 14 - 2.º dcha. BILBAO-1

Gure alegiña Bizkaiarentzat da.

Gaur, beti lez, gure erriaren billaketa-lanari laguntzeko gagoz.

Gaur, aurrera joteko sasoian, itxaropena oztopoen gaiñetik jarrita,
 otseintza ta laguntzarako gure gogorik onena,
 barriro ta geiagotuz sortzen da.

Gaur, eta egunero, Bizkaiaren izena omentsu eta,
 batez be, emoneko berba lez daroan
 Aurrezki Kutxaren lana, indarra ta amesak, ez dabe utsik egingo.

Berari erantzuten jarraituko dogu.



TXURRUKA'ri oroitarria Areetan.
 Itxasoaren oldarra gelditzen,
 gizonaren neurribako
 alegiña:

BIZKAIKO
 AURREZKI KUTXA



CAJA DE AHORROS
 VIZCAINA

Bizkaiko Foru Diputazioak sortu eta bultzatutako Erakundea.